

Narinhel

Poesiazkoa zen haren izena: Narinhel.

Eta izena bezain ederra zen bere gainontzekoa: ilea, ikatzaren ilunez margotua zirudien.

Eta belztasun haren azpitik nabarmentzen ziren, inoiz ikusi ez bezalako bi argi berde.

Ametsetan ere ikusten nituen haren begi berdeak.

Narinhel.

Eta ni maiteminduta erori nintzen bere lehen begiradapean.

Ez dut berehalakoan ahaztuko aurtengo udara. Aspaldian gure herrian egondako udararik sargoriena izan delakoan nago. Ados egongo zarete, ezta? Zinez egin du bero aurtengo udaran. Eta are gehiago berotu da bere presentziarekin.

Udara berezia izan da, bai, aurtengoa, besteak beste, gure amaren heriotzatik igarotako lehenengoa izan baita. Emakume noblea zen gure ama. Bizitza guztian elkarren babesa ezagutu ondoren, bere hutsunea sumatu dut gure etxean. Zulo handia. Adinez aurrera bazihoan ere, oraindik goiz zen bere heriotzarako. Goiz zen ni bakarrik uzteko.

Neguan gertatu zen haren heriotza. Oraindik ere, hori kontatzera ausartzea balentria ikaragarria iruditzen zait. Zergatik? Ama nuelako nik maite, Narinhel gure pentsiora agertu artean behintzat.

Kale nagusiko hiru solairuko etxea da gurea. Gure aita, ni jaio eta gutxira hil omen zen, eta bizitza aurrera atera beharrez, amak, etxea pentsio bihurtzea erabaki zuen. Aspaldiko kontuak dira hauek, ni haur bat nintzenekoak, eta niretzat, gure etxea beti izan da pentsioa. Berrogei urtez hala ezagutu dut, eta oraindik ere, amarik gabe baina horrela izaten jarraitzen du.

Alargun batentzat bizitza aurrera atera beharra ez da erraza, are gutxiago pentsioko lanez gain hazi beharreko haur bat ondoan izanda. Horregatik, urte hauek guztietan etxean egin beharreko lanak atzeratuz joan dira. Pixkanaka, garai bateko pinturaren zikina gero eta nabarmenagoa bihurtu da, eta teilatuko zuloak ere ezin izan ditugu estali. Ni helduagoa izatean saiatu nintzen ezer egiten, baina amak esaten zidan bezala, ni ez nintzan lan horietarako jaio. Horregatik jarraitzen genuen egun euritsutan eskaileratako putzutuan baldeak jartzen. Pentsio bat zen azken finean, ez bost izarreko hotela.

Badakit zuek Narinhelen berri nahi duzuela jakin, baina istorio guztia hemen hasi zen. Hirugarren solairuko putzutuan. Aurreko negua izan zen aspaldiko euritsuena. Ederra urtea, eh? Halako negu, horrelako uda! Euria medio, hirugarren solairuan apopilo dagoen “lorittoa” behin eta berriz kexu genuen, itoginak estaltzeko, eta teilatua konpontzeko. Hainbat saio izan zituzten amak eta biek gaiaren inguruan. Pentsioz aldatuko zela mehatxu ere behin baino gehiagotan egin zuen, baina hitzetan geratzen zen beti.

Amarekin izandako eztabaida horietako batean gertatu zen guztia. Ama eta biok, pentsioko lehen solairuan bizi ginen, atetik sartu eta berehala dagoen lau gelako pisu txiki batean. Oraindik ere nire etxea den horretan. Gainontzeko apopiloak, bigarren eta hirugarren solairuan izaten dira. Normalean bigarreanean, itoginak saihesteko, baina “loritoak” hirugarren solairuan bizi nahi zuela-eta, han eman genion gela. Eta hala ere, behin eta berriz kexu genuen eskaileretako putzuen inguruan.

Itoginak eta ordaintzen zuenari buruzko azken sesioa izan ondoren, ama “loritoaren” etxetik irten zen batean gertatu zen. Gorputzean zeraman haserrealdiarekin, ez zen eskaileretako putzuarekin akordatu ere egin, eta konturatzeko irrist egin, eta eskaileretan behera etorri zen. Medikuek azkar gertatu zela esan zidaten. Lepoa hautsi eta ez omen zuen sufritu.

Badakit esan dudala hau dela istorioaren hasiera. Horrekin ez dut esan nahi, ordea, gurean krimenak lehen heriotza horrekin hasi zirenik, ez eta inork gure ama erail zuenik ere. Zorigaitzoz hil zen ama, hori hala da.

Baina une horretan abiatzen da nire kontakizuna, hurrengo egunetik aurrera nire arduraren izan baitzen pentsioa aurrera eramatea. Ez nuen egun bakar batez itxi, amaren hutsunea negarrez bete banuen ere. Amak erakutsi zidan txikitandik gurean diru beharra bazela, eta ez zegoela jai hartzerik. Horregatik, ez nuen inoiz oporrerik ezagutu, ez eta jai hartu genuen iganderik ere. Gure amak beti zioen bizitza aurrera ateratzeko lana egin beharra dagoela, eta gaur aurreztutako diruak biharko beharrak uxatuko dituela. Eta izerdiaren arrazoiak erakusten zidan bere esanaren egia.

Agian, horregatik ez dut inoiz lagunik izan. Ez eta neskalagunik ere. Agian, horregatik bizi izan naiz beti amarekin, eskola orduak amaitzen nituenean pentsioan laguntzen, edo ikasketak amaitu nituenean etxean lanean geldituz. Baina amari zor nion guztia, eta amak arrazoi zuen: bizitzan aurrera egin bagenuen lan eginez izan zen, eta horrela jarraitu dut bera gabe ere, Narinhel iritsi arte.

Duela gutxi iritsi zen gurera. Esan dudana bezala, aspaldian egindako bero handienekin batera. Nik behintzat, ez dut horrelako berorik ezagutu urtetan. Izerdia zen gurean nagusi, eta etxe guztia izerdi usaina hartzen joan zen pixkanaka. Hirugarren solairuko “lorittoa” kexu nuen egunero, bero horrekin ez zegoela bizitzerik eta gure amak ez bezala banuela garaia etxean diru pixkat gastatzeko.

Nik erantzun ere ez nion egiten. Egia esan, ausartu ere ez nintzen egiten. Baina gorroto nuen “lorittoa”. Gure ama bere erruz hil izanaren sumina nuen barneratuta, eta beste inor ez bezala nuen gorroto. Baina ahula naiz izatez, eta amarik gabe, ez nintzen ausartzen aurre egiten. Nire etxeko atea itxita izaten nuen, eta ate joka uzten nuen kanpoan, aspertu arte.

“Badakit barruan zaudela, barruan zaudela” oihukatzen zidan, “zabaldu atea, atea”.

Horregatik deitzen genion “lorittoa”. Jakin-mina zenuten ezta? Loritoen moduan esaldiak errepikatze ohitura zuen, berak esandakoak edo beste edonork esandakoak,

berdin zioen. Lehendik ezin eraman banuen, hizketan entzuten nuen bakoitzean are gehiago gorroto nuen. Astean behin bakarrik zabaltzen nion atea, egoitzaren ordainarekin etortzen zen ostiraletan. Eta egun horretaz baliatzen zen bera esan nahi zizkidan guztiak esateko. Umiliatu egiten ninduen, baina esan dizuet, koldarra naiz. Eta gainera, bera zen une horretan nuen bezero bakarra, eta bezeroek dirua uzten dute.

Horrelakoa zen nire bizitza Narinhel iritsi zenean. Ez zen bakarrik etorri. Tak ezizenaz deitzen zuen itxura beldurgarriko morrosko batekin etorri zen. Gure etxeko atea jo eta zabaldu nienean, bikotearen kontrastea izan zen niretzat deigarriena. Narinhelen edertasun lirainak, Taken basapizti itxurarekin egiten zuen aurre. Arrisku usaina zerion Takek bazter guztietatik, arriskua irakurtzen zen bere begiradan, eta arriskua haren gorputzaren hizkuntzan. Ez zegoen mundua asko ezagutu beharrik horrelako gizona etxean hartzea arriskutsua zela jakiteko, baina Narinhelen begiek ez zuten beste aukerarik uzten.

Bigarren solairuko gela eman nion bikoteari. Etxeko gelarik onena, baina besteak bezain beroa. Gure pisuaren gain-gainean geratzen zen juxtu, eta bertatik haien mugimendu guztiak sumatzen nituen. Egun osoa eman nuen nire gelan, haien mugimenduak jarraituz, aurrera eta atzera, atzera eta aurrera. Beraiek joan-etorrian, eta ni ohean etzanda, Narinhelen begiak nituen buruan.

Gau hartan hasi zen nire galbidea. Pentsioan, noski, ez dugu aire egokitu ez antzeko tramankulurik ere. Alferrikako gastua zela esaten zuen amak, eta arrazoi zuen. Horregatik, leihoak itxita izaten genituen egunez, beroari ahal zen moduan ihes egin nahian, itzaletan biziz saguzarren moduan. Baina gauez, etxeko leiho guztiak zabaltzen genituen, existitzen ez zen freskura bati etxera sartzeko gonbita eginez. Freskurarik ez, baina ordura arte ezagutu ez nuen bezalako beroa sartu zen gau hartan gure gelan. Eta nire gorputzean.

Ohe gainean etzanda, goiko solairuko ohea entzun nuen mugimenduan. Mantso hasieran. Biziago jarraian. Basati amaieran. Ez zen horrelakorik entzuten nuen lehen aldia, baina hala ere ez nuen inoiz antzekorik sentitu. Ohe zaharraren mugimenduek ez zuten zalantzarako tarterik uzten, baina leihoaren zabaletik etorri ziren konfirmazioko oihuak. Nolako oihuak!

Narinhelen ahotsa zen gau beroan plazer oihuak zabaltzen zituena. Gauean egoten ez zen freskura kiskaltzen zen oihu artean. Eta ni, ohe gainean etzanda, inoiz ezagutu ez nituen plazer horien begi berdeekin ametsetan erotu nintzen.

Aste horretan, gauero errepikatu ziren demoniozko oihuak. Eta gauero egoten nintzen ni etzanda, ohe gainean, beroak eragiten ez zidan kalentura batek kontsumituta. Behin bakarrik ikusi nituen haren begi berdeak, baina oihuekin batera buruan sartuta sentitzen nituen.

Aste horretako egunak nire gelan sartuta igaro nituen, beroak itota. Gauetz entzuten nituen oihuak, oihartzun bihurtzen zitzaizkidan egunez, eta benetakoan zain ematen nituen orduak, gaua berriz noiz iritsiko. Gauak aldiz, ostirala noiz iritsiko bizi nituen, oihu horien plazera begi berde bihurtzeko irrikaz, ostiraleko ordainketa egitera Narinhel bera etorriko zenaren esperantzaz. Tak goizetan entzuten nuen, etxetik irten, eta normalean ez zen iluntzera arte itzultzen. Lanera joaten zela pentsatzen nuen orduan, eta egia esan, ez dut inoiz jakin nora joaten ote zen. Lana egingo zuen bai, baina bere erara.

Ostiral horretan, “lorittoa” izan zen ordaintzera etorri zen lehena, goizean goiz betiko moduan. Bere ahots sarkorrarekin, betiko leloa errepikatu zidan behin eta berriz, “ez dago bero hau agoantatzerik, bero hau agoantatzerik” esaten zidan “horrela jarraituz gero pentsioz aldatu beharko dut, pentsioz aldatu beharko dut”. Eta berehala gelaren prezioa merkatzeko eskatzen zidan, atso zahar horrek! Nik banekien diru arazorik ez zuela, zurkeriz bizi zela gurea bezalako pentsio merke batean, eta hala ere prezio beherapenak eskatzen!

“Loritoarenak” agoantatzen ari nintzela iritsi zen Narinhel. Bere begien distirak ahanztura ekarri zidan, eta ni inoiz egitera ausartu ez nintzena egin zuen bi hitzekin: “lorittoa” uxatu. Ni esnatzerako, eskaileretan gora zihoan hura, marmar batean neska lotsagabe haren ingurukoak ahoan, eta nik, begi berdeak eta irribarre bat nituen aurrez aurre.

“Nola agoantatzen duzu horrelakorik?” galdetu zidan errukiz betetako begirada batekin.

“Bezera da” erantzun nion nik, “eta ezin diot zuk bezala erantzun”. Barre egin zuen berak orduan, eta barre horrek inoiz sentitu ez nuen zerbait piztu zuen nire barnean. Ez dakit nik eman nuen lehen urratsa, ez dut uste, baina konturatu orduko nire etxean geunden biok kafe bana eskuan genuela. Elkarren konpainian egin genuen goiza, hitz eginez. Berak hitz egiten zuen gehienbat, eta ni berari so. Egia esan, ez nion arreta

gehiagi jartzen, bere begiek harrapatuta nindutelako. Alde egiteko altxa zenean esan zidanaz oroitzen naiz, ordea: “Gustura hartzen da konpainia pixka bat” esan zidan “eguna bakarrik ematen dut, eta eskertzen da hau. Inporta bihar ere tarte batean etortzen banaiz?” galdetu zuen. Nik ezin nuen sinetsi halakorik, eta mesedez, etortzeko erregutu nion, ni ere bakarrik nengoela eta asko estimatzen niola denbora hori.

Horrela hitzartu genuen gure lehen hitzordua.

Ulertuko duzuen bezala, gau hori egin zitzaidan guztietan luzeen. Ohearen mugimendu eta leihotik sartzen ziren plazer oihuak inoiz baino minberago bihurtu zitzaizkidan. Belarriak ixten nituen, baina alferrik. Nire buruan entzuten nituen oihuak. Nire bihotzean sumatzen nuen haren plazera. Inoiz baino luzeago aritu zirela iruditzen zitzaidan. Inoiz ez bezala behin eta berriz aritu zirelakoan nago, eta ni, bitartean, ohe gainean etzanda, biluzik, izerdi patsetan zoro.

Ez nuen lorik egin gau osoan, eta goiza ere esna eman nuen, adi; Narinhel noiz iritsiko zain. Amaren heriotzatik ez bezala, etxea txukundu nuen, gelak garbitu, bazter guztiak xahutu. Baina Narinhel ez zen goiz hartan agertu. Eguerdian goiko pisuko soinuen menpe nengoen, belarriak erne. Pauso guztiak jarraitzen nituen, Narinhel nirera noiz etorriko zain.

Orain konturatzen naiz nire baitan bizitako irrika haiek guztiak norbaitek aurrez aztertu eta eragindako egoera bat besterik ez zela. Maitasunaren jokoan maisu zen hark apropos bideratutako beroaldian erori nintzen bete-betean.

Azkenik, arratsaldean etorri zen Narinhel etxera. Inoiz baino ederragoa ikusi nuen nik arrats hartan, udako soineko arin bat jantzita. Bere begien kolorea nabarmentzeko propio jositako soinekoa zirudien hark. Eta kolkoan, azala argizatzen zioten izerdi tantak dantzatzen zitzaizkion goitik behera. Nire begiradatik ihesi baleude.

Horrela abiatu zen hona ekarri nauen eromena. Ingurua bero zegoen. Baina inoiz ez nuke pentsatuko berotasun hori ezinezko kitzikadura bihurtuko zitzaidanik.

Kafea hartuz hasi ginen, bezperan bezala. Hizketan egin zuen hark, eta bere begiei begira egon nintzen ni. Noizean behin, nonbaitetik zapi bat atera eta goitik behera zetozkion izerdi ttanttak lehortzen zituen, nire kolkoan ttantta berriak sortuz. Beroaz hitz egin zidan egun hartan, egunez egiten zuen beroaz, eta gauez existitzen ez zen freskuraz. Bakardadeaz hitz egin zidan ere, egunez jasan behar zuen bakardadeaz, eta gauez izaten ez zuen konpainiaz. Taki buruz galdetu nion nik orduan, gauez entzuten nituenak buruan nituela, baina halakorik aipatu gabe.

“Gorroto dut” erantzun zidan nire harridurarako. Eta hasieran gaizki ulertu nuela pentsatu banuen ere, hala zela berretsi zidan, “loritoak” egingo lukeen moduan “gorroto dut” errepikatu zidan, bere begi berdeen argia iluntzen zen bitartean. Garai bateko maitasuna galdua zuela, eta beldurrak lotzen zuela azaldu zidan arratsalde hartan. Beldurra Taki, beldurra bere ondotik alde eginez gero gertatuko zenari. Hil egingo zuenaren beldur.

Maitasuna eta gorrotoa uztartu zitzaizkidan. Maitasuna nire aurrean negarrez ari zen lamiarekiko, eta gorrotoa, gorrotoa ikaratzen zuen basapiztia horrengan. Baina horrelakorik esan beharrean nire bakardadeaz hitz egin nion nik, amak utzitako zuloaz, eta etxe horretan “loritoaren” konpainiaz bizitzeak suposatzen zidan heriotzaz aritu nintzaion. Negar ere egin nuela uste dut, “loritoak” bizi arazten zidan umilazioaz ere jardun nintzen, nire amaren heriotzaren arduradun zen “loritoa”, eta Narinhelek hasieran eskaini zizkidan lasaitasun hitzak laztan bihurtu zituen pixkanaka.

Horrela hasi zen, bai, eromen bihurtu zaidan egoera. Horrela hasi zen, ohean amaitu zen lehen arratsalde hura, eta horrela hasi hona ekarri nauen bizipenak.

Harrez gero, arratsaldero gozatzen genuen elkarren konpainiaz. Arratsaldero izaten nituen begira begi berde kuttunak, eta arratsaldero bizitzen nituen gauero amestutako plazer oihuak.

Iluntzero, ordea, nire ondotik alde egiten zuen. Tak iritsi aurretik bigarren solairura joaten zen ihesi, haren ongi etorria prestatzera. Eta hurrengo eguna noiz iritsiko, belarriak itxi eta amets egiten saiatzen nintzen orduan. Narinhel nirekin zegoela amesten nuen, arratsa zela gauaren orde, eta oihu haiek nirekin emanak zirela. Nire plazerean oihu.

Egunak eman genituen horrela.

Gezurra esango nuke asteak izan zirela esanez gero, ez baitzen hainbeste denbora igaro. Hala nahi nuke nik, baina egun batzuk besterik ez ziren izan. Zoriontasunak gutxi irauten duela diote, eta nire kasuan bederen hala izan da beti. Aurrekoak baino sargoriagoa zen arratsalde batean Narinhel negarrez etorri zitzaidan.

“Loritoak guztia daki” bota zidan besarkatzen nuen bitartean. “Eta zer?” galdetu nion nik atsoarekin haserre. “Xantaia egin nahi dizu,” erantzun zidan, “ez omen dizu gehiago errenta ordainduko, edo Taki kontatuko dio gurea”.

Haserretu egin nintzen lehenik.

Beldurtu ondoren.

Narinheli begira gelditu nintzaion. “Zer egin behar dugu orain?” galdetu nion.

“Ihes” erantzun zidan berak.

Gehiago beldurtu nintzen orduan. “Ihes? Nora ihes? Eta Tak? Zer gertatuko da harrapatzen bagaitu?”.

Guztia pentsatuta zeukan. Plana oso sinplea zen, sinpleagatik halabeharrez funtzionatu behar duten horietakoa. Eta pausoz pauso kontatu zidan, bere begi berdeekin nireak harrapatzen zituen bitartean. Nik beldurrez entzun nion hasieran, emozioz ondoren, eta balentriaz amaitu zuenerako. “Behingoagatik bada ere, bizitzari aurre egingo diot” esan nion behin eta berriz neure buruari plana errepasatzen genuen bitartean.

Zuek ondorioa baino ez duzue ezagutu, baina plana ez zen horrelakoa. Ez niri kontatu zidana behintzat. Ez niri ausardia piztu zidan plan hura. Ideia honakoa zen: gauean, Tak iristen zenerako, Narinhel etxean egongo zen haren zain. Maitasuna egingo zuten, gauero egin ohi zuten moduan. Azken agurra izango zela esan zidan Narinhelek, amaitu orduko hil egingo baitzuen. Sukaldeko aizto bat erabiliko zuen horretarako, “loritoaren” sukaldeko aiztoa.

“Loritoaren” sukaldeko aiztoa nola lortuko genuen galdetu nionean azaldu zidan planaren bigarren zatia. Ordura arte entzundakoekin nahikoa beldurtuta banengoen, okerreana entzun nuen orduan. Niri zegokidan zatia zen hori.

Goiko pisuko ohe soinuak entzuten hasi orduko, nire berotasunak uxatzeko erabiltzen nuen haizagailua eraman behar nion “loritoari”. Egunero zituen kexuen erantzun moduan joango nintzela, horrelako bezero bat ezin nuela galdu esan, eta pixkat lausengatuko nuela nire etxeko haizagailua eskainiz. Eta bere etxera sartzen utzi orduko, haizagailuarekin buruan jo eta hil egingo nuela. Nire amari egindakoen bengantza izango zela esan zidan begi berde haiekin begira. Niri biziarrizitako umilazioen mendekua izango zela haizagailuaren azken kolpea.

Eta nik “loritoa” gorroto nuen.

Hiltzeraino gorroto nuela ere esango nuke, baina inoiz ez nintzen ausartuko horrelako zerbait egitera begi berde haiek sorgindu izan ez banindute.

Narinhel nire begietara itsatsita zegoen planaren zehaztasunak kontatzen zizkidan bitartean. Sinkronizazioa omen zen garrantzitsuena, poliziak Tak eta “loritoa” elkar hil zutela pentsa zezan.

Horretarako, Taken gorpua “loritoaren” etxera eramango genuen. “Loritoak” Tak lapurretan harrapatu zuenaren itxura emango genion inguruari, eta honek haizagailuarekin kolpatu ondoren, “loritoak” aiztoa sartu ziola itxuratu. Elkar hil zutela irudikatuko genuen, batek haizagailuarekin behin eta berriz kolpatuz, besteak aiztoa behin eta berriz sartuz. Elkar hil arte.

Orain konturatzen naiz zein punturaino nengoen sorginduta. Itsututa esan beharko nuke, baina maitasuna itsua dela aspaldi esan zuten mundu osoko poetek.

Gaua iritsi zenean ohe gainean etzan nintzen egin beharrekoan pentsatuz. Nire koldarkeria ausardia bihurtu nahi nuen Narinhel nirea izango zela amestuz. Nire gorrotoa, herio bihurtu nahi nuen amaren heriotza mendeku eginez. Baina nire burua, goiko solairuaren oheak egiten zituen hotsetan zegoen. Pasio bihurtutako begi berdeen hotsa. Eta ni gauero bezala hipnotizatuta nengoen haiek entzunez.

Oihuek belarriak zulatzen zizkidatela, inoiz izan ez dudan borondate bati dei egin behar izan nion, ohetik jaiki, haizagailua hartu, eta bihotza mintzen zidan bigarren solairua atzean utziz “loritoaren” ateraino iristeko. Ondorengo uste baino errazagoa egin zitzaidan, loritoaren ahots errepikakorrean “zer nahi duzu, nahi duzu” entzun besterik ez nuelako izan haizagailua bere buruan zanpatzeko.

Ez nuen ahoa zabaldu. Narinhelen plana guztiz ahaztuta, “loritoaren” errepika entzun bezain pronto egin nituen berekikoak. Urtetan jasadako kateen ihesbidea izan zelakoan nago oraindik, kate haiek eskuburdina bihurtu zaizkidan honetan.

“Loritoaren” gorpua ahalik eta txukunen jarri nuen sukaldean, heriotza bertan topatu zuenaren irudia sortu nahian. Haizagailua ere lurrean utzi nuen, bere ondoan. Narinhelek esan bezala eskularruak erabili nituen ekintzarako, eta ez nuen hatz-marken kezkarik.

Ez bestelako kezkarik ere.

Egia esan, irribarre bat nuen ezpainetan hirugarren solairutik jaitsi nintzenean. Ez Narinhel nireganatuko nuelako soilik, ama hil zen eskailera haietan nengoelako baizik. Irribarrez iritsi nintzen bigarren solairuko atera, eta hala jarraitu nuen ate joka aritu nintzen bitartean. Inork zabaltzen ez zidala ikustean hasi nintzen larritzen.

Pisura sartu eta bertan ez nuen inor topatu, ez bizirik, ez hilik. Ez odol tantarik, ez ezer.

Larritu egin nintzen. Eta larritasun horretan nire etxerako eskailerak launaka jaitsi nituen, abaila batean.

Narinhel! Zerbait gertatu ote zitzaion?

Etxera sartu orduko ohartu nintzen gertatuaz. Hutsik zegoen, inoiz baino hutsago.

Bizitza oso bateko diruak gordetzen nituen kutxa bezain hutsa.

Nire bihotza bezain hutsa.

Hori da, bada, istorio guztia. Hasieratik amaierara kontatua, zuek eskatu bezala. Badakit luzatu egin naizela, eta agian zuentzat garrantzitsuak ez diren hainbat gauza kontatu ere, baina hori da nik bizitakoa, eta honen guztiaren zergatia.

Hortik aurrerakoa ezagutzen duzue. Zuek kontatu didazue. Emakume anonimo baten deia jasota bertaratu, eta han topatu ninduzuen ni, etxean bueltaka.

Hiltzailea. Eta biktima.

“Loritoak” esango lukeen moduan “tontoa baino tontoagoa, baino tontoagoa”.

Nik hil nuen “Loritoa”. Ez izan zalantzarik.

Eta nire istorio honek ez du ezertarako balio. Badakit. Zuek gertatuaren erantzulea behar duzue, eta horretarako ni naukazue. Bigarren solairukoak bezeroak besterik ez ziren azken finean. Zuei bost Narinhel nor zen. Ziur, gainera, izenean ere oker nagoela. Poesiazkoa zen bere izena: Narinhel. Eta ziur nago ez zela bere benetako izena.

Baina lapurtua izan naiz.

Dirua lapurtu didate. Eta bizitza.

Baina bihotza... bihotza ere lapurtu didate. Eta horrek ematen dit min gehien.